

Karmenak • Markina**EGITARAUA**

Hasi da Markinako itzulua

Bizikleta gaineko poteo herrikoiaz hasiko dituzte gaur jaiak herriko kuadrilek



EGUNKARIA

Markinarrek bazkari herrikoia egingo dute bihar.

Arantza Aldazabal | **MARKINA**

Herri bakoitzak bere historia, bere ohiturak eta bere bizimodu berezia ditu. Ederto asko eza-gutzen ditugu guk geure herriko kontu horiek guztiak, eta ondo dakigu jakin, jai hauetan zer egin ondo pasatzeko. Oraingoan, ordea, kanpokoei zuzenduko gatzazkie. Haiek Markinako Karmen jaiak bereak bezala senti ditzaten aholku batzuk emango ditugu jarraian.

Markinako herriak beti izan du lotura errotua kirolarekin; pilota, auto rallyak, bizikleta. Azken hori izaten da, hain zuzen ere, gazteek herriko jaiak hasteko aukeratzen duten kirol mota.

Markinako herria bira ziklista txiki baten gonbidatzaile bihur-

tzen da ordu batzuez, eta kuadrilek osatzen dute biraren pelotoia. Kuadrila bakoitzak bere praka eta niki bereizgarriak ditu, elkar topatzearen lana errazteko edo.

Bizikleta bira horren helmuga ez dago leku zehatz batean kokaturik (taberna bakoitza baita helmuga), seguraski biraren funtsa ez delako helmugara lehenengoa iristea. Ohiko itzulien oso bestelakoa da gurea. Bira honen gakoa, Euskal Herrian horren herrikoia den ohitura, txikiteoa edo poteoa, alegia, betetzea da.

Esan beharrik ez dago gure

bira horretan parte hartzeko ezinbestekoa dela bizikleta ekartzea, beraz, badakizue lortu bizikleta nonahi!

Ekintza hori aurrera eramateko komenigarria da, era berean, bizikleta gainean gutxieneko abilezia izatea, ez baitugu nahi —itxurazkoa ere ez da— herriko jaiak gozatzen hasi baino lehen erretiratu beharra izatea.

Bizi beharreko bigarren esperientzia herri bazkarian parte hartzearena da. Herri bazkaria bihar egingo da, eta ekintza horretarako ez da aparteko ezer eskatzen. Behar den gauza bakarra zera da, sukaldari argibide

BIZIKLETA BIRA

Helmuga ez dago leku jakin batean, taberna bakoitza da eta helmuga puntu bat

txiki bat eta lagun giroan ederto asko pasatzeko gogoia.

Herri bazkarian ez dute soilik gazteek parte hartzen, bazkari herrikoi honetan herriko familia guztiek baitute ordezkaria zelaian. Hitzordu berezia izango da markinarrontzat biharkoa.

Ondorioz, kasu horretarako aholkua zera izango litzateke: aurreko eguneko bizikleta poteoan ezagututako neska-lagunak edo mutil-lagunak bazkarira gonbidatu. Izan ausardia, galtzeko ezer ez dago eta!

Herri bazkari horrek jana eta edana batzen ditu. Ez dago ardurarik, beraz, proba hau gainditu ahal izateko, euskaldunok jai-edan kontuetan ondo moldatzen gara eta.

Ligatzeko edozein toki da ona, trebetasuna behar da ordea

Ekintza bi hauei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko ezinbestekoa da era berean, Markinako taberna eta ligatzeko tokiak ondo ezagutzea.

Hona, jarraian, lige kontueta-rako gida.

Esaterako, dantza egiteko musika gogoko dutenek, alde zaharreko, aurreko aldean kokatutako tabernak bilatu behar dituzte. Musika gogorragoa gustuko dutenek, berriz, alde zaharreko, atzeko aldean eta zelaiko goiko aldean kokatutako txosnetan aurkituko dute bilatzen dutena.

Ligatzeko toki egokia, beraz, edozein izan daiteke. Lekuak ez du axolarik, norberaren trebetasuna da horretan garrantzitsua.

Bestelako ekintzak ere badi-tugu gure herriko festetan: pilota partiduak (eskuzkoak zein zestazkoak), herri kirolak, bertsolariak, mus txapelketa, antzerkia, erromeria eta abar.

Aholkuak aholku, gure jaiak ondo aprobetxatzeko, Markinara etortzea baino ez duzue. Jakin beharreko guztia badakizue; zuen eskutan dago orain Markinako Karmengo jaien oroitzapen on bat eramatea. Besterik gabe, ongi etorri!

GAUR

17:30: Kuadrilen erlojupeko proba, Barinaga eta Markina artean.

18:30: Alabarioren kalejira trikitalariek alaiturik, Xemeindik irtenda. Osteen, pregoia. Txupinazoa. Poteoa bizikletan.

19:00: Erraldoiak eta buruhandiak, txistulariek alaiturik.

21:30: Danborrada.

22:30: Pilota partidua frontoian.

23:30: Rock kontzertua: Azken Deabruak, Absterger, Azken Garrasia, Parasma, Etsaiak.

BIHAR

9:30: Txistularien diana.

10:30: Esku pilota partiduak.

11:00: Eskualdeko txirindur lasterketa.

12:30: Trikitalariak

12:30: Paella txapelketa zelaian.

14:00: Sari banaketa.

14:30: Herri bazkaria.

16:00: Playblack.

17:00: Pilota partiduak. Zesta eta esku pilota.

17:00: Mus txapelketa.

18:00: Tinbaleroak.

23:00: Erromeria: Saka Triki taldearekin.

ETZI

08:30: Txiste lehiaketa, dantza lehiaketa, buruhandien saria, txokolatada.

09:30: Txistularien diana.

12:30: Rakel Pujanaren kantaldia.

17:00: Briska txapelketa.

17:00: Pilota partiduak frontoian (Euskadiko txapelketaren aurrefinalak).

17:00: Biketrial Show, Iker Lezetarekin. Ondoren kuadrilen arteko jokoak.

23:00: Erromeria Urgabe taldearekin

ETXANO *Jatetxea*

**Betiko sukaldaritza tradizionala
Guztiz berriztuta**

Erdotza, z/g - Tel.: 94.616.61.01 - MARKINA-XEMEIN

GAIMAZ

**GAIMAZ, s.a. Eskabazioak
eta Baso-berritzea**


Agustin Deuna, 3 behea • Tel: 94 616 76 11 • Fax: 94 616 76 11
MARKINA-XEMEIN

AMAIUR Elkartea



**Ez dugu
izaterik
aske haiek
gabe
haiekin askatuko
baikara gu ere**

94 616 77 01
MARKINA-XEMEIN



MENDI-ONDO Zerrategia, S.L.

Unamunzaga auzoa, 19

Tel.: 94 616 77 81

Mugikorra: 908 31 83 52 (Javier)
48277 ETXEBARRIA (Bizkaia)

Alerze egurrarekin kaperio eta biga bereziak